

Errenteria

HERRI BIZIA

BABES ZIBILA, BOLUNTARIOEN LAGUNTZA HERRIARI
Protección Civil, voluntariado ayudando al pueblo



Hizkuntzen
Topagunea
3. ORR. >>

Agintaldi
Plana
6. ORR. >>

Herri Bizia
8. ORR. >>

Babes
Zibila
12. ORR. >>

Errenteria
Bizia
15. ORR. >>

HERRI BIZIA

ESKU TELEFONORAKO UDAL APLIKAZIOA
LA APLICACIÓN MUNICIPAL PARA TU MÓVIL

APPa
ESKURAGARRI!
¡APP
DISPONIBLE!



Ordutegiak · Horarios
Helbideak · Direcciones



Albistek
Noticias



Jaialdi eta jaien egitarauak
Programas de fiestas y festivales

Eta askoz gehiago
Y mucho más



Errenteria Herri Bizia Udal Aldizkaria-Revista municipal 12. zenbakia

Hizkuntzek batzen dutelako

Errenteriako 40.000 pertsonako biztanleria hamarnaka hizkuntza komunitatetako hiztunek osatzen dute. Batak bestearen berri izateko asmoarekin, Hizkuntzen Topagunea sortu dute.

Errenteriaren hizkuntza paisaia asko aldatzen hasi zen milurteko berria hastearekin batera. Euskarari eta gaztelaniari beste hamarnaka hizkuntza komunitateetako pertsonak gehitu zaizkie. Panorama ederki aldatu da. Aldaketa

horren seinale izan daiteke detaile txiki bat: udaleko Euskara Sailaren izen berria Hizkuntza Politika Saila da.

Bi hizkuntza dira ofizialak, eta migranteek ekartzen dituzten hizkuntza propioekin askoz gehiago dira. «Horrek kudeaketa berezi bat me-

rezi du», azaldu dute udal arduradunek. Euren ustez, kudeaketa gabezia bat egotea bada kudeaketa mota bat. Beraz, «ordena» pixka bat ezartzeko ardura hartu zuen udalak, euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntzei begirune bat azaltzeko. «Aurreikusita dagoenez, datozen urteetan, Gipuzkoara 15.000 pertsona etorriko dira urtero, eta horrek aldaketa handi bat ekarriko du. Horrek guztiak kudeaketa bat eskatzen du; arlo askotan, baina baita hizkuntzan ere».

«Pertsona guztiek euskara ulertzea eta erabileraren normalizazioa dira Udalaren helburu, euskara bigarren mailako hizkuntza izatetik erdigunera ekartzea. Eta euskal hiztunak lehen mailako herritar egitea, eskubide ororen jabe». Bide horretan Udal Hizkuntza Politika sailak ez du euskara lengoaia isolatu gisa ulertu, beste hainbat mintzairekin elkarrekintzan bizi den hizkuntza gisa baizik. «Uste dugu hizkuntza komunitate anitzen aitortzak eta ezagutzak lagun dezakeela euskara bera ere aitortua izaten eta ikasteko grina eta desioa pizten. Elkarren arteko lehiatik, bizikidetzarako urratsak eman behar ditugu hizkuntza-aren esparruan ere».

Amin Maalouf idazle libanoarraren hitzak gogora ekarriz, bestearengana beso zabalik zoazenean, burua altu eraman behar da, eta besteak horrela jasoko zaitu. «Hizkuntzeekin horrela jokatu nahi dugu. Gu eus-

«Con la creación de Hizkuntzen Topagunea, el Ayuntamiento busca reciprocidad en el respeto a los idiomas»

kararentzako begirunea eskatzen ari gara, eta horretarako, guk eskaini behar dugu begirunea. Quid pro quo egin beharko litzateke, eta uste dugu horrela gure hizkuntzak irabaziko duela».

Hizkuntza politikan, beraz, egoera berriek eskatzen duten malgutasunarekin jokatu dute. Orain dela

urte batzuk, arabiar komunitateak udalari txoko bat eskatu zion, beren haurrei transmisioa bermatzeko. Lau Haizetara Euskaltzaleen Topaguneak harrera egin zien, eta trukean eskatu zieten kontuan hartzea hemen euskara ere badagoela, handik etorritako eta hemen sortutako hizkuntzen transmisioaren bi hari puntak lotzeko.

«Proiektuak bidea egin ahala, egun Udal Euskaltegian garatzen da egitasmoa, nahi genuen begirunea erakusteko», gaineratu du udalak. Bi arrazoiengatik: alde batetik, toki sinbolikoa delako, 'euskarak hartzen zaitu' esan nahiko balu bezala; eta era berean, ikasketa eta hizkuntza transmisiora bideratutako eraikina delako.

Arabiera, hasteko

Arabiar hizkuntzarekin hasi dituzte transmisio eta ikasketa eskola horiek. Azaldu dutenez, heldu zein haurrentzako eskainitakoak dira, bako-

tzaren jatorria kontuan hartu gabe. Hainbat talde sortu dituzte, profil ezberdinetakoak. Horietako bat da, esaterako, Erreterrian jaiotako helduen taldea, arabiera eskolak jasotzen dituen. Hainbat arrazoi direla eta, arabieraren oinarritzko ezagupenak jasotzen ari dira: batzuk, hizkuntzarekiko interes soilagatik; besteak, arabiar kulturara hurbildu nahi dutelako.

Eskola horien gehigarri moduan, amazigh kultura eta hizkuntzari buruzko hiru saioko zikloa antolatu dute lehen Hizkuntzen Topagunearen hiruhileko honetan. Adituak ekarri dituzte, amazigh-ari buruzko hitzaldiak eman ditzaten, hainbat alorretakoak.

Arabierarekin hasi, baina etorkizunean beste hainbat hizkuntzarekin jarraitzea da udalaren asmoa: ukrainiera, galiziera... Jarri dira harremanetan komunitate horietako kideekin, eta antzeko zerbait egingo dute datozen bi hiruhilekoetan. «Hizkuntzen arteko harreman sano bat nahi dugu», gaineratu dute.

Ez dira ikastaro formal-formalak. Hizkuntzen inguruko oinarritzko ezagutza batzuk emateko inguruneak sortzen dituzte, baina zerbait akademikoagoa eskaintzeko, toki egoikiagoak daudela uste dute. Guraso arabiarrek, esate baterako, seme-alabentzako transmisioa bermatzeko eskolak ere antolatu dituzte testuinguru honetan.

Hiztun kopuru erlatiboki handia duten komunitateentzako, eta komunitateek beraiek, sortutako eskola ez-formal horiez gain, erakutsi



«Aparte de ofrecer clases con nociones básicas de árabe, también han llevado a cabo un ciclo sobre el amazigh, con expertos»

nahi diete hemen euskara existitzen dela. «Hemen badago euskara ez den beste hizkuntza ofizial bat —gaztelania— eta hori ikasiko dute, badaude horretarako baliabideak. Euskarak baditu ezintasun batzuk momentu honetan, eta nahi dugu halako begirune bat jasotzea».

Gainera, udalak nahi du Euskal Herrira kanpotik etortzen diren pertsona horiek guztiek euskara ikasteko aukera edukitzea: «Datozeneri, erakutsi behar zaie hemengo baliabide guztiak bere esku ditzutela. Izan ere, euskara igogailu soziala izan daiteke momentu batean edo bestean».

Proiektu aitzindaria

Hizkuntzen Topagunea bezalako proiekturik ez dago inguruan. Kataluniako herri askotan badute esperientzia handiagoa, baina Euskal Herrian ezer gutxi aurki liteke. Erreterriakoa, beraz, egitasmo aitzindaria da. Interea du; eta, esaterako, Soziolinguistika Klusterrean; hori dela-eta, udala eta klusterra elkarrekin ari dira begiratzen lehendabiziko ikasturte honek ea zer ematen duen.

Pixkanaka-pixkanaka, beraz, herriaren kohesioa bilatzeko bidea urratzen ari dira, hizkuntza aniztasuna aberasgarria dela erakusten.

ÁRABE, PARA TODAS Y TODOS

Aniztasun Kulturalako Eguzki Elkarteak organizó hace tres cursos, por primera vez, clases de árabe para las personas más jóvenes. Con el paso del tiempo, suman ya unos 80 niños y niñas que asisten cada viernes al Euskaltegi Municipal. Según cuenta el miembro de Eguzki Ahmed Fikry, crearon esos cursos para que los niños y las niñas con progenitores de origen árabe pudieran aprender el árabe clásico.

No es la única línea de trabajo: también han organizado cursos de alfabetización para mujeres árabes que tienen poco o ningún conocimiento de esta escritura. Y el tercer ámbito en el que trabajan es el de las clases para las personas adultas que desconocen este idioma.

«La mayoría de las niñas y los niños que están aquí nacieron en el País Vasco, y ya hablan castellano y euskera. Los padres y madres quieren que sus hijos e hijas tengan cierto

conocimiento cuando van de vacaciones donde sus familiares». Ahmed Fikry explica que es difícil que lo aprendan en casa, ya que pasan la mayoría del día en el colegio. Este año, además, han empezado a dar clase a los propios profesores, porque no tienen la metodología adecuada.

Mientras los y las jóvenes acuden a clase, sus madres aprovechan para alfabetizarse. «Hay mujeres que no tienen ninguna noción y, por si tienen que hacer algún trámite administrativo, quieren aprender al menos algo», dice Fikry. En total son una docena.

Doblan ese número las personas de procedencia autóctona. Forman dos grupos: unos saben algo de árabe, y los otros, nada. Fikry asegura que muestran un gran interés: «El proyecto es muy importante: se pueden conocer la cultura e idioma árabes. Me parece bien que se puedan conocer las personas de una diversa procedencia cultural».



Agintaldirako Plana
Errenteria 2019-2023
Plan de mandato

Consíguelo en
errenteria.eus-en eskuratu



infórmate del día a día en
herriko egunerokotasunaren
berri izateko



HERRI BIZIA

herribizia.erreterria.eus

« No al despilfaro alimentario

Con el objetivo de evitar el despilfaro alimentario, durante el verano y el otoño se ha desarrollado una campaña especial en los restaurantes y fruterías de Erreterria. En total han participado, de manera voluntaria, ocho restaurantes y siete fruterías.



Juanmi Gutierrez gogoan »»

Giza Eskubideen V. Jardunaldiak izan dira herrian azaroan eta abenduan. Juanmi Gutierrez oroitu zuten jardunaldietan, izan ere, bere lan esparruan giza eskubideen defendatzaile izan baitzen.



« De entrada, actitud activa

Las entradas de Erreterria tienen un nuevo mensaje, apelando a la actitud activa de la ciudadanía para que el municipio esté libre de lesbofobia, homofobia, transfobia, bifobia e interfobia.



Beraun, más accesible

Ya está en marcha la construcción de dos ascensores urbanos en Beraun. Uno unirá la calle Beraun con el número 11 de Jesus Guridi, y el otro conectará las calles Jesus Guridi y Julián Lavilla.



Udaletxean, iraunkor

Eskolako Agenda 21en barruan, herriko ikasleek iaz eskatutakoei erantzunak eman zizkien alkateak. 2019-2020 ikasturtean, aurrekoaren gai berbera landuko dutela jakinarazi zuten haurrek: energia eta klima aldaketa.



'Soy una tumba', saridun

Khris Cembe galziarraren 'Soy una tumba' lanak irabazi du Erreterriako XXIV- Film Laburren Jaialdiko Ion Arretxe Sari Nagusia. Orotara, 890 lan aurkeztu, eta 32 izan dira hautatuak.



Behobia-Errenteria-Donostia >>

Errenteriak handia egin du Behobia-Donostia lasterketan. Chakib Lachgar irabazle izan da gizonetan, eta Elena Silvestre lehen gipuzkoarra eta sailkapen nagusian laugarrena emakumeetan. Azaroaren 10ean, herritik pasatu zirenean, burrunba batean animatu zituen Errenteriak. Udalak, ohorezko harrera egin zien.



67 puestos de trabajo

El Ayuntamiento tiene en marcha tres planes de empleo a través de los cuales se espera contratar a 67 personas antes de final de año: el Plan de Empleo Juvenil, el Plan de Empleo Ordinario y el Plan de Empleo de Choque.



Euskara, ahoan

Abenduaren 3ko Euskararen Eguneko ekitaldien barruan, Mintzodromo jendetsua egin zen Merkatuzarren. Euskara hiztun berriek eta trebatuek, hizkuntza bihotzetik mingaineraino eraman zuten. Aurrera begirako konpromisoa, argia: euskara ikasten ari direnek ondoan izango dituztela hiztun zaharrak.



//udal taldeen mezuak//

TRABAJANDO PARA MEJORAR ERRETERIA

[PSE-EE] Se acaban de aprobar los presupuestos para 2020 y gracias a la aportación del PSE-EE, se han evitado principalmente descensos propuestos en Servicios Sociales y Medio Ambiente.

En lo social hemos aumentado los planes de empleo y se van a realizar programas de prevención de la soledad, pobreza energética y prevención de ludopatías.

En materia medioambiental se destinarán más recursos a acciones contra el cambio climático, para prevención y sensibilización e instalación de leds en edificios.

Asimismo, se actuara en diferentes zonas que consideramos urgentes: Rehabilitación pérgola plaza Urdaburu, saneamiento ascensor de Sorgintxulo, mejora accesibilidad en Berraun, arreglo de subida peatonal a Versailles, y aumento de las partidas para asfaltado para llegar a más calles necesitadas del municipio.

Seguimos trabajando para mejorar Errenteria y la calidad de vida de sus ciudadanos.

ZURE EROSKETAK ERRETERIAN TUS COMPRAS EN ERRETERIA

[EAJ-PNV] Badatuz Gabonak eta Errenteriako EAJK eskari bat zuzendu nahi dizue. Batetik, Gabonetako erosketak, ahal duzuen neurrian, Errenterian bertan egitea. Gure kaleak bizirik mantentzeko hain beharrezkoa den herriko merkataritzaren aldeko apustua egin behar dugu, urte osoan, baina baita bereziki Gabonetan ere. Bestetik, opariz eta janari gozoz jositako festa hauetan behar baina hondakin gehiago sortzen dugunez, jokatu zuhurtziaz erosketetan, behar ez duzuenik ez erosi eta sortzen dituzuen hondakinak gaika sailkatu. Egin diezaiogun errenteriarrok gure ekarpena jasangarritasunari.

Se acercan las Navidades y os pedimos 2 cosas. La primera, que realicéis vuestras compras en el comercio local. Para que las calles de Errenteria sigan vivas necesitamos conservar nuestro comercio. La segunda, en estas fechas que generamos tanto residuo, sed responsables en vuestras compras y separad los residuos.

TU COMERCIO CERCANO, TU MEJOR OPCIÓN DE COMPRAS

[Elkarrekin] Herri biziak, gertuko komertzio eta den den "bihotza" behar dute. Estamos en estas fechas de compras y consumo. Es una buena ocasión para hacer «pueblo». Actualmente muchos de los pequeños comercios, esos a los que conocemos de años y dan sentido a nuestras calles, buscan seguir adelante, sobrevivir, vivir. Muchas veces está en nuestras manos apoyarlos frente a los grandes gigantes como Amazon o proyectos irracionales y especulativos como Zaldunborda.

Elkarrekin Errenteria (Podemos Euskadi, Ezker Anitza-IU y EquoBerdeak) queremos ser parte de este apoyo y contribuir al crecimiento de nuestra comunidad, pero... ¿qué ventajas tenemos al comprar en Errenteria? Te citamos cuatro

1. Cercanía.
2. Atención al cliente: trato personalizado y especialización.
3. Sostenibilidad y proximidad.
4. Genera riqueza y empleo local.

No lo dudes en estas fechas y a lo largo del año que tu comercio local, es tu mejor opción de compras.

Jai egun hauek famili eta lagun giroan pasa ditzagun, komunitatea eraikiz, eta arrazoi ezberdinengaitik gure artean ez dauden pertsonak ere gogoratu nahi ditugu. Urte berri on denori.

BABES ZIBILA, BABES KOMUNITARIOA

[EH Bildu] Askotan esan izan dugu herri honek baduela zerbait berezia. Kanpotik bertaratzen direnek ere asko azpimarratzen dute berezitasun hori. Herri honetako bizilagunek duten inplikazioaz ari gara, dudarik gabe.

Babes zibila ere horren adibide da. Boluntario lana egiten dute eta hainbat egoera ezberdinen aurrean aktibatzen dute daukaten sarea: zuhaitzak erortzen direnean, suteak daudenean etab. Gertaera hauetan bigarren segurtasun lerro bat osatzen dute, udaltzain, suhiltzaile edo dagokion profesionali lagunduz. Baina beraien jarduna ez da ezbeharraren gaitara mugatzen. Kultura edo kirolarekin zerikusia duten hainbat ekimenetan ere bertan ikusi ahal ditugu.

Egun 26 gizon eta emakumez osatzen dute talde hau herrian. Langile ikusezinak askotan, boluntario aritzeak suposatzen ohi duen bezala. Nekaezin beti herria eta bizilagunei laguntzen. Komunitatea zaintzen.



Protección y ayuda voluntarias

Con su uniforme naranja, es fácil ver a estas personas en algún evento multitudinario o en situaciones de emergencia. Forman parte de Protección Civil, y este año la asociación ha cumplido 26 años.

Dicen que muchos los confunden con la DYA o con los guardias de movilidad de Donostia. «No tenemos nada que ver», aclara Ana Cerro, responsable de Protección Civil de Errenteria. «Somos una asociación de voluntarios que realizamos una serie de prevenciones en actividades que se hagan dentro del municipio, y que requieran una colaboración», continúa. Y

lo resume en una frase: «Al fin y al cabo, somos una ayuda al profesional, ya sean bomberos, policías...».

Eso sí, los y las voluntarios y voluntarias cuentan con formación en ciertos aspectos. «Tenemos conocimientos de fuegos, de primeros auxilios, de utilización del Desfibrilador Externo Automático, algunos sabemos manejar motosierras...», explica Cerro. Quizás haya quien tenga más formación

que otros, ya que su profesión así lo requiere.

La segunda línea

Según explican, cuando ocurre alguna desgracia, Protección Civil siempre se coloca en un segundo plano. «Por ejemplo, si se propaga un incendio, no vamos a estar nunca en primera línea. Por dos razones. Una, porque somos voluntarios. Dos, porque los profesionales son los bomberos, y están mucho más preparados que nosotros y nosotras.»

Si siguiendo con el ejemplo expuesto, los voluntarios y las voluntarias saben que un bombero necesita hidratarse, y de vez en cuando les acercan algo de beber. Aseguran que es tan importante como sofocar las llamas con una manguera. «Si el bombero se deshidrata y se cae», precisa Cerro, «tenemos dos problemas: el fuego y atender a quien se está deshidratando.»

En estos ejemplos: se producen fuertes rachas de viento y se caen unos árboles. Avisan al voluntariado de Protección Civil, ven quién está disponible —muchas veces tienen que atender sus propios trabajos—, y van adonde ha ocurrido la caída. Cerro afirma que sus competencias, aunque necesarias, son mínimas: «Cuando hace viento, no podemos hacer mucha cosa. Nos limitamos a acotar la zona y evitar, cuando haya peligro, que se caiga nada encima de nadie. Nuestra función es dar seguridad, y sobre todo, prevenir... y que se vea el chaleco naranja.»



ANA CERRO

«Babes Zibileko kideak, larrialdi uneetan, bigarren lerroan geratzen dira, profesionalentzako laguntza direlako»



INAKI JIMENEZ

«Larrialdi uneez gain, boluntarioak hainbat ekitalditan egoten dira: Errege Magoen desfilea, inauteriak, ekitaldi jendetsuak...»

Son dos ejemplos de acciones en situaciones inesperadas. También manejan un calendario con varios eventos, como la cabalgata de los Reyes Magos, o el desfile de carnaval. «El Ayuntamiento nos manda una instancia, le damos curso, la gestionamos y nos ponemos a ello», explica Cerro.

JATORRIA, IRRATIGINTZAN

1993an sortu zuten Erreterriako Babes Zibilaren taldea. Kuriosoa irudi baleza-ke ere, irratizale koadrikula batek erein zuen lehenengo hazia. Iñaki Jimenezek gogorarazten duen bezala, klub bat zuten, eta eurek kudeatzen zuten dena. Trintxerpe, Beraun eta Lezon izan zituzten lokalak.

Irratizale talde hartan, baina, baziren larrialdien mundua gustuko zuten bi lagun. «Hasieran», zehaztu du Angel Barron kideak, «eurek kudeatzen zuten dena, baina taldea boluntario berriei ireki behar izan zieten». Haien ustez, Erreterriak bazituen gabezia batzuk. Suhiltzaileen baserik ez duela, esaterako. «Horregatik, Babes Zibileko talde bat sortzeko proposamena egin zen», esan du Barronek.

Tresneria eta ekipamendu gutxi zituzten hasiera hartan, nahiko egoera eskasean zeudela gogorazi du Jimenezek: «Polo txuri bat janzen genuen, galtza bake-roekin. Botak ere etxetik eramandakoak ziren. Ondoren buska batzuk eman zizkiguten, freskagarri marka batenak».

«Urteen poderioz, egoera hobetzen joan da. Gainera, boluntario izateak Euskadin, estatuko gainontzeko tokietan adinako garrantzia hartu du», gaineratu du Barronek.

Kuriositate bat kontatuta bukatu du Barronek: «Aspaldi, aurrekontuetako diru partida txikiagoa zen, eta Eusko Jaur-laritzari eskatzen genion diru-laguntza. Uniformeak eskatu genituen behin, eta 40 pala bidali zizkiguten... Hortxe dauz-kagu oraindik».

No son los únicas aglomeraciones que cubren. En la cancha del polideportivo de Galtzaraborda suelen organizarse actividades no-deportivas durante el año. Los voluntarios y voluntarias que se desplazan hasta allí suelen velar por mantener las vías de evacuación despejadas, supervisar si los extintores están en perfecto estado... También les llaman cuando se espera una masiva afluencia en algún encuentro deportivo. «No suele ocurrir muchas veces», afirma Iñaki Jiménez, jefe de la agrupación, «pero cuando prevén que el evento que van a organizar llega a ese aforo, acudimos, aunque no entre en la agenda de prevenciones preestablecida».

26 voluntarias y voluntarios

Hoy en día la agrupación la conforman 26 voluntarios y voluntarias, aunque han tenido un techo histórico de unos 80. Como dicen, cada año cobran el doble que el anterior: cero. Suelen reunirse los miércoles por la tarde, a las 19:00, en el local que tienen en el polígono industrial de Masti-Loidi, justo al lado de la comisaría de la Policía Municipal.

La de los miércoles es una cita fija. Si hubiera algún imprevisto, obviamente, quienes reciben la alerta se apresuran a acercarse a su sede. Y por si la situación de emergencia se alarga en el tiempo, disponen de camas plegables.


«Normalmente», añade Jiménez, «cuando se nos activa, hay gente que está trabajando y no puede acudir. Además, tenemos gente que tiene una actividad profesional diversa: sanitarios, almaceneros, guardias municipales, secretarías, camioneros, pensionistas... tenemos de todo». Destaca que cada una de estas personas aporta en lo que puede, dentro de sus posibilidades.

Aunque sean voluntarios y voluntarias, necesitan una dotación económica para mantener toda la infraestructura. Lo detalla Iñaki Jiménez: «Somos agrupación municipal, dependiente del Ayuntamiento. Recibimos una partida presupuestaria, y con ella gestionamos la agrupación. Ahí entran la ropa, el material que utilizamos, las dietas de cuando hacemos salidas... Menos la instalación, que es del Ayuntamiento, todo lo demás lo gestionamos con esa partida presupuestaria». En el organigrama, por encima de ellos, están el sargento de la Policía Local, el concejal y el técnico de del área de Seguridad, y, claro está, la alcaldesa.

Afirman que las puertas de la agrupación están abiertas para todos aquellos que quieran unirse. Lo pueden hacer, simplemente, acercándose a la sede de la agrupación, cualquier miércoles por la tarde. Eso sí, con un guiño, han querido dejar clara una cosa: ellas y ellos... no ponen multas.

Argazki zaharra

1920ko hamarkadako argazki hau, Topoarena. Egun, Euskotrenek kudeatzen du Irun eta Lasarte-Oria lotzen dituen zabalera estuko tren zerbitzua, Erreterriako hiru geltokietatik pasata. Baina beti ez da horrela izan. 1912ko abenduaren 5ean, duela 107 urte, egin zuen lehen bidaia Topoak Donostiatik Irunera. Zerbitzua esku pribatuetan egon zen hasieran. 1923ra arte, Compañía del Ferrocarril de San Sebastián enpresak kudeatu zuen, eta ordutik aurrera Sociedad Explotadora de Ferrocarriles y Tranvías-ek (SEFT). 1973an, zituzten zorrerengatik, eten egin zen Topo zerbitzua, 1979an Eusko Jaur-laritzak lekukoa hartu, eta Eusko Trenbideak kudeatzen hasi zen arte. Egun, erreterriarrek asko erabiltzen dute.



Ba al zenekien...

un **9,9 %** de erreterriarras **nació fuera del Estado?**

Erreterria, según los últimos datos que presenta El Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT, 2019) tiene **40.141** habitantes. **27.092** personas son nacidas en Gipuzkoa (**67,49 %**), mientras que en Araba y Bizkaia son **119** y **322** respectivamente. Los y las erreterriarras que han nacido en otras provincias del Estado representan el **21,72 %** de la población total (**8.717** habitantes), y el **9,69 %** (**3.891** erreterriarras) proceden de múltiples países del mundo. Todas estas personas forman esta comunidad plural y llena de vida que se llama Erreterria.



Txoko bat

Erreterria eta industria, historikoki, bat datoz. Horren adibide bat da Fanderiako errota. 1450. urtean burdinola bezala sortua, fanderia, irin errota, irin fabrika edo pentsu fabrika izan da mendeotan. Orain, XXI. mendeko kultur ekipamendu modernoak da, Ibairen Etxea, Oiartzun ibaiaren interpretazio zentroa. Herriarrek bisita dezakete, ibilbide gidatu bidez. Herriaren ondare industrialaren zati baten berri izan dezakete, beraz, bakarka eta taldeka, 943 494 521 telefono zenbakira deituta, eta bisitarako txanda eskatuta.

Udal bibliotekak

BIBLIOTECAS MUNICIPALES



NEGUKO ORDUTEGIA HORARIO DE INVIERNO

Nagusia *Principal:* 8:30 - 20:30
Ordutegi berezia *Horario especial:* 2019-12-24 / 31 8:30 - 15:00

Haurren biblioteka *Biblioteca infantil:* 16:30 - 20:00
Ordutegi berezia *Horario especial:* 2019-12-24 / 31 10:00 - 14:30

Bizarain: 16:00 - 18:30
Bizarain itxita *Cerrada:* 2019-12-23 - 2020-01-06

IKASGELAK AULAS DE ESTUDIO (Madalena kalean)

Azaroaren 30etik, otsailaren 9ra *Desde el 30 de noviembre hasta el 9 de febrero*

Larunbatak *Sábados*

9:30 - 18:00

Igandeak *Domingos*

9:30 - 13:30

Jai egunetan itxita *Festivos cerrados*

JARDUERAK / ACTIVIDADES

Irakurketa klubak *Clubes de lectura:*

- Haurrak *Infantil*
- Helduak *Personas adultas*
- Ikastolak eta ikastetxeak *Centros escolares*
- Elkarteak *Asociaciones*

Bestelakoak *Otros:*

- Interes gunea *Punto de interés*
- Itsu-itsuan *Lectura a ciegas.*
- Adimena Bizkortzen *Ejercitando la mente*
- Elikadura tailerra *Taller de alimentación*
- Ipuin kontaketak *Cuentacuentos*

Bisita gidatuak *Visitas guiadas:*

- Haurrak *Infantil*
- Gazteak *Jóvenes*
- Helduak *Personas adultas*
- Irakurketa erraza *Lectura fácil*

Erabiltzaileen prestakuntza

Formación de usuarias y usuarios:

- Helduak *Personas adultas*
- Haurrak *Infantil*
- e Liburutegia

Jarduera bereziak: kontsultatu bibliotekan edo kultura.errenteria.eus webgunean

Actividades especiales: consultar en la biblioteca o en kultura.errenteria.eus

Telefonoa: 943 449 635

Aldizkari honen hurrengo zenbakiak herritik kanpo bizi den errenteriarren batek jasotzea nahi baduzu bete ezazu beheko formularioa. Si quieres que alguna o algún errenteriarra que viva fuera reciba los siguientes números de la revista háznos llegar sus datos rellenando el formulario:

Izena *Nombre* _____

Helbide osoa *Dirección completa* _____



HERRI BIZIA
errenteriarren bizirik



Errenterriako Udala

Entrega ezazu kupoia udaletxean edo jarri gurekin harremanetan herribizia@errenteria.eus edo 943-44 96 00 telefonoan.
Entrega este cupón en el ayuntamiento o ponte en contacto con nosotros a través de herribizia@errenteria.eus o el teléfono 943-44 96 00.